



**Zorionak
eta urte
berri on!**

Gabonak - Adinekoen egoitzak

Eguberri doinuak argi-izpi

Ilusioa, aldarte ona, oroitzapenak eta ohitura berriak itzuli dira Hernaniko adinekoen egoitzara. Iazkoaren bidetik bada ere, Gabonen atarian gogotsu daude egoiliarak; tartean, egunerokotasunetik bereizteko egitasmoak ate-joka dituztelako.



ALOÑA BERAZA PEÑA

URUMEA ADINEKOEN EGOITZAK

Hotz da kanpoan. Aldiz, goxotasuna sentitzen da Hernaniko adinekoen egoitzako egongeletan. Gabonetako apaingarriak nonahi, argi koloretsuak, distirak, pinuak eta jaiotzak ere bada zentruko solairu guztietan. Iritsi dira Gabonak Hernaniko adinekoen egoitzara ere.

Birjina maite tonuardean oroitu du Feliciano Sistiagak nolakoa den Gabonen usaina. 97 urte dituen sanjuandarrak ilusio handiz bizi izan ditu beti Eguberriak, familiaren eta tradizioaren gerizpean. 30 urte eman ditu Parisen bizitzen, eta dagoeneko hamarkada bat ere egin du Hernaniko zentruan. Kalera atera, eta Gabonetako giroa ikustea polita dela dio: «Kaleko argiak piztuta egoten dira, Gabon kantak eta musika toki guztietan, eta haurrak etxetik abesten ikustea gustatzen zait. Poza ematen dio herriari».

Hernaniko adinekoen egoitzako erabiltzaileek urte luzez parte-hartu dute herriko Gabonetako ekintzetan. Olentzeroen bisita izaten dute, herriko abesbatzak ere hurbiltzen dira egoitzako korridoreak alaitzera, eta baita Ttarla dantza taldeko

kideak ere, besteak beste, oinak aineratu eta eskuak goratzera. Ordea, egungo egoerak hori ere aldatu duela kontatu du Nerea Muñozek, Hernaniko adinekoen egoitzako begiraleak: «Gure ohiturak ere aldatu ditu pandemiak. Hartu-eman handia izan dugu beti herriarekin, baina bigarren urtez ezin izan dugu herriko eragileekin ekintzarik antolatu».

«Badirudi Gabonak egoitzetan tristeak direla, baina ez da hala, oso garai polita da»

Aitzitik, iazkoarekin alderatuta, desberdintasun esanguratsu bat aipatu du Bea Matilla egoitzako psikologoak: «Iaz bisitak ere oso murriztak ziren, eta senideek ez zuten aukerarik egun garrantzitsuenetan egoitzara etortzeko. Aurten, zorionez, norbaitek Eguberri egunean bisitatan etorri nahi badu, badago horretarako aukera». Herriko eragileek, baina, ezin dute egoitzako egitarauan parte-hartu. Halabeharrez egindako etena den arren, Matillak aitortu du etenaldia handia ari dela izaten: «Egoitza ez getifikatzeko oso garrantzitsua da hurremana. Egoiliarak dira, baina baita herritarrak ere. Egoitza herrian dago, eta garrantzitsua da egoitzak herriko jardueretan parte-hartzea». Gizartera-



Urtezaharreko errondak beti izaten du hitzordua zaharren egoitzan.

tzearen parte dela gaineratu du Muñozek, herrian integratuta sentitzeko ezinbestekoa: «Herriaren parte direla sentitzen dute, bestela, badirudi egoitzako erabiltzaileak ahanzturan geratzen direla».

Etxe barruan bada giro

Egungo egoerara egokitzeko premiak bultzatuta, iaz egoitzan bertan prestatu zituzten ekintza guztiak, eta horrek egoiliarren artean ohi baino prestutasun handiagoa somatzea ekarri zuen. «Erabiltzaile bat Olentze-

rorena egiteko prest azaldu zen eta ondoren beste bat ere animatu zen erregez janzteko. Solairu bakoitzean Olentzero eta errege bana izan genituen. Oso polita izan zen, gogotsu zeuden eta ilusioa berpiztu zen egoitzan», adierazi du Muñozek. Matillak ere nabarmendu du sorpresa handia izan zela guztientzat: «Sekretua gordetzeko eskatu genien, eta isilpean moztortu genituen. Asko gozatu genuen denok, langileontzat ere garrantzitsua baita egoiliarrek ondo daudela ikustea». Irriki-

tan daude aurreko urteetako ohiturak berreskuratzeko, baina, aurten ere iazko planteamenduari eutsi beharrean dira; solairu bakoitzean antolatuko dituzte egitasmoak, sektORIZIOARI eutsiz.

Sistiagak gustuko du kantuan aritzea, eta azaldu du abenduaren 22an izango dutela horretarako astia egoitzan: «Fededuna naiz, eta oso praktikan-tea. Gogoko dut abestea, batez ere betiko abestiak, tradizionalak eta elizako kantak. Gabon kantak taldean abesteko ekin-

HERNANI (Gipuzkoa)

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu

ADARRAGA

Gozotegia

Urbieta Etorbidea 7
943 55 09 10

AITAN - ETXE TABERNA

GABON JAI ZORIONTSUAK!

Larramendi, 15
943 55 00 46

Erretegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Zorionak eta urte berri on!

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - Tel. 943 333 333

«Urte berriari bakea eskatzen diot. Balekin bai, baina txertoarekin izango ote dugu bakerik?»

«Txapela kentzekoa da egoiliarrek eta senideek denbora luze honetan izandako jarrera»

tzan oso gustura aritzen naiz». Bestelakoak ere badira; San Tomas egunean txistorra izaten dute merienda orduan, eta bingo, toka edo karta txapelketak ere antolatzen dituzte. Gainera, Gabonak iritsi aurretik eskulana aritzen dira; egoiliar bakoitzak postal bana egiten du, ondoren senideen etxeetara bidaltzeko.

Kisketak 'klik

Hernaniko adinekoen egoitzan, gainerakoen antzera, unean uneko egoerara etengabe egokituz daramatzate ia bi urte. Protokolo aldaketak, neurri are murriztaileagoak eta zorroztasuna dira egunerokotasunean hizpide. Adinekoen egoitzetako erabiltzaileak izan dira inork baino itxialdi luzeagoa pairatu dutenak, eta, oster, denbora luzea igaro da bisitak jasotzen hasi diren arte. Berezik gogorra ari da izaten haien zentzura, eta egoera luze doan honetan, denbora urre sentitzen dute. Hala ere, egoitzako psikologoak azaldu du orain animoz ondo daudela: «Gu ez gara konturatzen kalera irtete hutsak zenbateko mesedea egiten dien. Egutero kalera ateratzeko aukera dutenetik, eta senideek bisitak egiteko baime-na dutenetik alde handia somatu dugu». Egoiliarrentzat zein senideentzat bereziki luzea eta gogorra ari dela izaten kontatu du, baina egoera berrietara egokitzeko duten gaitasuna mirezgarria dela dio: «Txapela kentzekoa da egiten duten saiakera, eta denbora honetan guztian izan duten jarrera. Gu kalean geunden eta haiek eraikinetik

atera ezinda. Konturatzen zara edonork baino gehiago baloratzen dutela momentuan momentukoa».

Dena den, eder edo itsusi, zein begik ikusi. Muñozek nabarmendu du Gabonen gainean denetariko iritziak biltzen dira egoitzan, kalean entzun daitezkeen iritzi kontrajarri berak: «Gustuko dutenek pozarren hartzen dute urte-sasoia. Beste batzuei, ordea, Gabonen kutsu nostalgikoak gehiago eragiten die; sentiberago egoten dira, ez nuke esango triste, baina asko hunkitu egiten dira, eta hori ere zaindu behar da».

Aurten, gaur-gaurkoz bai behintzat, aukera dute jaiak familiarenean igarotzeko. Matillak azaldu du pertsonaren arabera hautua izaten dela, baina, gehienek, nahiago izaten dutela egoitzan bertan geratu, edo, asko jota, bazkari berezi-tarako irteten eta otorduaren ondoren egoitzara itzuli. «Errutina eta ordutegi propioa dute hemen, eta askotan kanpora joateak onura baino desoreka eta ezinegona sortzen die. Nahiz eta aukera izan, gutxi nahi izaten dute etxekoekin ospatu», gaineratu du.

Jatekoaz beste

«Birjina maite» amaitzeaz «Aurtxo txikia sehaskan dago» hasi du Sistiagak, eta letra baten eta bestearen artean etena egin da, bide eman die oroitzapenei: «Gogoan dut nire etxean nik hartzen nuela jaiotza jartzeko ardura. Eta, Eguberrian ezinbestekoa zen aza olioarekin eta ozpinarekin jatea. Horren



Hernaniko Adinekoen Egoitzan ere giro goxoan ospatuko dituzte Gabonak.

ondoren, gurean gaztainak ez ziren sekula falta». Berretsi du garaia aldatu direla, eta gizartea bestelakoa dela. Beraz, ohiturak zahar batzuk atzean utzi eta berri batzuei tarte egin diela kontatu du: «Orain azarrik ez, baina arkumea, arraina, turroiak, polboroiak, errege opila eta txanpaina izaten ditugu». Izan ere, kaleko bizimoduaren isla beharko lukete adinekoen egoitzak. Hortaz, egun seinatuenetan etxeetan jateko berezia izaten den modu berean, egun horietan egoitzako menua ere bestelakoa dela azaldu du Matillak: «Mahatsa ere jaten dute urte zaharrean, ohera joan aurretik».

Aldatu ez diren ohiturek, ordea, tinko dira; ikazkinaren edo Ekialde Hurbiletik datozen erregeen opariak jasotzeko tradizioa, esaterako. Hernaniko adinekoen egoitzak bina opari prestatzen dizkio egoiliar bakoitzari Eguberrian. Abenduaren 24an ireki ohi dute lehena, Olenzerok ekarria; eta urtarrilaren 5ean bigarrena, Erregeen kortesia. Urte hauetan guztietan mantak edota poltsikoan gor-

detzeko moduko erlojuak jaso dituzte opari gisara. Aurtengoa zer izango den jakin gabe, ordea, Sistiagak argitu du pozarren hartuko duela dena delakoa: «Beti izan naiz oso dotore janztekoa, eta gustukoa dut apaintzea. Nik ez dut ezer eskatzen, baina oso gustuko dut urtebetzetan senideek oparitu zidaten kolonia».

«Herriarekin dugun hartu-emana ezinbestekoa da. Egoiliarrek dira, baina baita herritarrak ere»

Eskaririk ez, baina desira bakarra ozen eta altu Sistiagak: «Urte berriarekin batera bakea nahiko nuke. Guk ezagutu ditugun gerrak saihestu behar dira, eta gerra berririk ez sortu. Balekin bai, baina txertoarekin izango ote degu bakerik? Guretzat hori gerra berria da. Lehen ez ginen gaizki, gure adinarekin beti egoten dira disgustuak, bai-

na azken urteetan ez geunden gaizki. Dena antzekoa izatea nahi nuke».

Sistiagak nahi propioez jardun badu ere, ziurrenik, egoitzako kide diren guztien ordezkari gisara ere hartu litezkeenak dira. Aurrekoak bezain libre ez, baina iazkoak baino goxoagoak izango dira aurten Hernaniko 108 egoiliarrek igaroko dituzten Eguberriak. Hernaniko adinekoen egoitzan Gabonez gozatzeko aukera izango da, batez ere, etxean, egoitzan bertan egindako apaingarriekin atondutako txokoen konpainian. Langileen aldarrean ere nabari da distira. Matillak eta Muñozek, biek ala biek aitortu dute Gabonak pizgarri direla egoitzan. «Askotan badirudi kalean jasotzen den pertzepzioa dela Gabonak adinekoen egoitzetan tristeak direla, eta bakardadea dela nagusi. Ez da hala, Gabon garai polita da hemen bizi eta lan egiten dugun guztiontzat», hausnartu du psikologoak. Izango da elkarri zer kontatua aurten ere pinuen artean, batenak eta bestearenak entzunez, edozein etxetako mahainguruen pare. **K**

ALAI

ODONTOLOGIA ZENTROA

PREBENTZIO ETA KONTSERBAZIO ODONTOLOGIA
HORTZ ESTETIKA
AHO KIRURGIA
INPLANTEAK
PROTESI FINKOA ETA MUGIKORRA
PERIODONTZIA
ORTHOAPNEA

ODONTOPIEDIATRIA
ERRADIOGRAFI PANORAMIKOAK
TELERRADIOGRAFIK
3D SCANNERRA
AHO BARRUKO SCANNERRA
KIRURJIA NABEGATUA
ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA IKUSEZINA

GABON JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

ETENIK GABEKO ORDUTEGI BERRIA
Astelehenetik ostiralera: 08:30 - 21:00
Larunbatetan: 08:30 - 14:00

Antziola 11, behe. HERNANI Tel. 943 33 53 73 www.alaiaclinica.com alaiahernani@gmail.com

ARTOLA

HARATEGIA

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Andre Kale 20
· Hernani ·
Tlf.: 943 05 54 89




UNAI ERROITZENE
EREÑOTZUKO ALKATEA

«Baliatu dezagun krisialdi hau gizarte bezala indartuta ateratzeko»

«Konturatzera, aurtengo urtea agurtzeko eta urte berriari ongi etorri emateko garaia iritsi da. Luzaroan gogoratuko dugu 2021. urtea, 2020.ena bezelaxe; ia bi urte dira Covid-19ak eragindako pandemia hasi zela. Gogorra doa, adinekoentzako batez ere; etxeko txikienentzat ere ez dira garai xamurrak. Hala ere, aurrera begira jarri nahi genuke. Baliatu dezagula krisialdi hau gizarte bezala indartuta ateratzeko, komunitatea sendotzeko, auzoa aktibatzeke, auzo bizi bat egiteko.

Datorren urtean ere Auzo Udala eta herritarren arteko elkarlanerako aukera izango da; bidelagun izan nahi zaituztegu. Horregatik guztiagatik, gabon zoriontsuak opa dizkizuet Ereñotzuko Auzo Udaren izenean eta bete daitezela 2022. urtean zuen desiorik onenak».



XABIER URDANGARIN
ASTIGARRAGAKO ALKATEA

«Aurtengo... ahal den m...»

«Gabonak, oporrak, a... lankideekin mahai in... zehar egun seinlatu... izan ditugunak, halab... uste genuen, baina er... gorri-gorrian ditugu z... bidali eta betikoa egit... ren lanak. Bi urte dar... etsia hartu. Aurtengo... dezagun elkar».



UNAI MIRANDA
GOIZUETAKO ALKATEA

«Urte berriari eskatzen diogu osasun egoera egonkortzea»

«2021 ezinbestean Covid-19ak baldintzatu du. Goizuetan elkar zaintzeko joera ez da berria, eta honek pandemia hau errazago pasatzen lagundu digu. Elkarrekin eta elkar zainduz. Zaintza honetan herritarrei eskerrak emateaz gain osasun etxeko langileei ere eskertu behar diegu egiten duten lana. Udal jarduerari dagokionez, urteko ekitaldi batzuk bertan behera gelditu diren arren, egin direnak oso ongi joan dira, udaletik eskerrak eman nahi dizkiegu ekitaldi hauek behar bezala egiteko lan egin duten guztiei, eta egunerokotasunean neurri hauek bete zitezen lan egin duten guztiei, herriko komertzio, eskola, taberna, jatetxe, elkarte, eta abar.

Urte berriari eskatzen diogu oro har osasun egoera egonkortzea, berriro ere lagun artean lasai elkartzeko aukera edukitzea eta Goizuetar guztiok gure ametsak betetzeko aukera izatea».

GABO

Esperantza, osasuna

Ereñotzu, Astigarraga, Goizuetan, Hernani...
dela azpimarratzen dute eta 2022rako des...

AMAIA
OKINDEGIA - GOZOTEGIA
Amaia Vitzi Anton

Zorionak eta urte berri on!!

Kale Nagusia - GOIZUETA 948 51 42 42

Amaia
arrandegia

*Zorionak
eta
urte berri
on!*

ESKAERAK ETXERA
ERAMATEN DITUGU

943 55 07 52 / 650 53 87 72
Andre Kalea 34. 20120 HERNANI

ANTZIOLA, 3
Tel. 943 55 17 91
HERNANI

ondo pasa gabonetan!

ANTZIOLA
OKINDEGIA

Garai zailetan ere,
elkar animatuz
jarrai dezagun.

*Zorionak
eta urte
berri on!*

ARRIATZU
BARAZKIAK

Atzieta kalea 41

urteberri on!!

AKZEN KILOMETROA

943 24 71 41 Akarregi, 1 Hernani

ARROBI
ostatua

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
2022 zoriontsua izan dezazue!

Oporrengatik itxita abenduaren
21etik urtarrilaren 7ra.

Santa Barbara auzoa 87
20120 HERNANI
tel 943 337 211
mov 629 991 476
info@arrobiostatua.com

bultza
Euskara
gureKin

www.arrobiostatua.com

«Gabonak ere goza ditzakegu, moduan; zaindu dezagun elkar»

tseden hartzeko egunak. Lagunekin, familiarekin edo laguruan bildu eta berriketan aritzeko egunak. Urtean asko ditugu, tamalez aspaldion bazterrean utzi behar beharrez. Pandemiaren azken ostikadak izango zirela errealitatea gordina da eta aurtengo Gabonen atarian zenbaki, semaforo eta adierazle guztiak. Dena pikutara irateko tentazioa handia da, handiegia. Nekearen eta ezinamatzagu ia 'ezin da' entzuten. Askok da. Baina ezin dugu Gabonak ere goza ditzakegu, ahal den moduan. Zaindu



XABIER LERTXUNDI
HERNANIKO ALKATEA

«Oraingoan bai, esperantza izan dezagun datorrena hobea izango dela»

«Beste behin ere urtea bere amaierara iritsi zaigu eta ziurrenik denoi ere uste baino azkarrago. Aurtengoa 2020a baino lasaigoa izango zela uste genuen, baina zoritxarrez ez da hala izan. Urte amaiera, normalean, balorazioa egiteko momentutzat hartzen dugu. Urte zaila izan da, besteak beste, pandemiak sortu dituen ondorioengatik. Horrek guztiak zer ikasia eman behar digu. Hala eta guztiz ere, gauza positiboak ere izan dira eta horietan zentratu behar dugu aurrera egiteko. Askorentzat data bereziak izango dira datozen egunak. Urte berri bati hasiera emango diogu laster eta, oraingoan bai, esperantza izan dezagun datorrena hobea izango dela. Urte berri on denei».

ONAK

indarra eta 2022rako

eta Aranoko alkateek 2021 urtea zaila izan ziorik onenak opa dizkiete euren herrikidei.



JOXEAN RUIZ
ARANOKO ALKATEA

«Gabonetan ere, ongi ospatu bai, baina tentuz aritu»

«Gogorra izan da aurtengo urtea ere, pandemiaren eraginez. Baina sufritu dugun arren, ondo gaude. Hori horrela da, txintxo ibili garelako aranoarrok, beharrezko neurriak hartuta. Izan ditugu garai zailak, baina guztion ahaleginari esker, ondo eutsi diogu pandemiari.

Ez dugu festarik eta bestelako ospakizunik izan beste behin; eta Gabonetan ere, ongi ospatu bai, baina tentuz aritzea eskatu nahi dizuegu. Guztion artean lortuko dugu honetatik ateratzea; eta espero dugu, datorren urtean bai, izango dugula aukera, gainerako festak bezala, Gabonak ere normaltasunez ospatzeko».

BIKAIN
OKINDEGI TX GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain **Urte berri on!**

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

BRINTZA
AHOLKULARITZA - CONSULTORIA

Zorionak eta Urte Berri On!

www.brintza.com
URBIETA KALEA 15, HERNANI
Tel.: 943 33 12 67 Fax: 943 33 08 92

dkl
HERNANI

www.dekolanak.eus

Materialen salmenta
Gremioen lan taldea
Berrikuntzak

Kale Nagusia, 41 • HERNANI
Tel. 943 336 083 • 653 739 340
info@dekolanak.eus

Gabon berezi hauek ondo pasa ditzazuela!

DORRONSORO
OKINDEGIA

Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jaiegunetan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jaiegunetan: 7:00-14:00

Euskal Pizza

Euskal Pizzak Gabon zoriontsuak opa dizkizue!

euskalpizza.com
943 33 33 73
Larramendi, 3. Hernani

IMANOL KAMIO
musika eskola

DOINU-ZALE
KARABEL AUZOA, 4 - beheka ezkerre
943 33 12 33

Solfeoa
Pianoa
Akordeoa
Panderoa
Bateria Modernoa

Biolontxelo

Tronpeta
Trikitixa
Kitarra
Abesbatza
Armonia

943 33 12 33 - 637 85 79 62
Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu.
Eguberri On!

Kroketak, legatza, txuleta, eta postrerako... etxeko natilak

Menu goxo-goxoa eta bertakoa, etxekoa, proposatu dute bailarako hainbat sukaldarik eta jatetxek aurtengo Gabonetarako. Probatu nahi?

URUMEA GABONETAKO MENUA

Abendua hastearekin batera, urtero zalantza bera sortzen da etxeko sukaldeetan. Zer sukaldatuko dugu aurtengoan? Arraia? Haragia? Eta hasierakoetarako zer? Postrea etxean egingo dugu?

Buruhaustea izaten da Gabonetako menua zein izango den erabakitzea, eta, batzuetan, denboraz larri ere ibili ohi gara guztia erosteko eta antolatzeke.

Bada, bailarako hainbat sukaldarik eta jatetxek kezka hori

saihesteko konponbidea aurkeztu diote Kronikari. Menu itxia prestatu dute zuek, irakurleek, Gabon Gauean, Eguberri Egunean, Urte Zahar Gauean edota Urte berri Egunean sukaldatzeko eta lagunak, senideak edota egun berezi hauek partekatuko dituzuenak aho zabalik uzteko.

Maitasun haundiz prestatutako platerak dira, su goxoan eta etxeko giroan. Bertako produktuekin egindakoak dira, beraz, bailaran eskuratu daitezke aukera guztiak egiteko osagaiak.

Kroketak, arraia, haragia eta natilak, aurtengorako

Xabat Erroizeneak proposatu ditu hasierakoak; nola ez, kroketak. Hernaniarra ezin hobe ari da horretan, eta bailarako herritarrei ahate konfit eta datil kroketa goxo-goxoak egiteko gomendioak eman dizkie. Bigarren platererako, Tripontzi tabernako Igor Muñoak txangurroz betetako legatza aurkeztu du eta Akelenea jatetxeak, berriz, txuleta patata frijituarekin eta piperrekin. Aukera paregabeak dira azken horiek ere Gabon hauetan dastatzeko. Amaitzeko, Rioja tabernako Maria Jesusek etxeko natilak prestatu ditu. Errezeta erraza bezain goxoa da, guztion gustukoa.



Etxeko txikienek ere lagundu dezakete Gabonetako menua prestatzen.

Animatu eta egin ezazue proba, ea bailarako sukaldariek bezain plater goxoak egitea lortzen duzuen! **K**

Ahate konfit eta datil kroketa

HASIERAKOAK



HERNANI XABAT ERROIZENEA

Gabonetako menua ezin hobe hasteko, Xabat Erroizeneak sukaldari hernaniarrak ahate konfit eta datil kroketa kontatu dio Kronikari. Datozen lerroetan deskribatuko du Gabon gauean arrakasta lortzeko gakoa. Bexamelari dagokionez, hementxe Xabaten errezeta pausoz pauso:

1. Ahate iztarra desmigatu eta bol batean jarri.*

2. Datilak eta tipula fin-fin pikatu.

3. Esnea mantso-mantso berotzen jarri.

4. Kazuela batean gurina eta olio berotzen jarri. Bero dagoenean, tipula bota.

5. Tipula sukaldatuta dagoenean, ahate desmigatua eta datilak bota. Irina gehitu eta guztia nahastu.

6. Nahasketa sei minutuz sukaldatu eta esnea (epela) gehitzen hasi, pixkanaka-pixkanaka. Kontuz: esneak ez



du irakiten egon behar, beroa baizik.

7. Esne guztia botatzerakoan, jarraitu nahasten, irakiten hasi arte. Sua (1etik 10era) 7 zenbakian eduki.

8. Irakiten hasten denean, dastatu eta gatza gehitu.

9. Irakiten dagoela, dastatu eta nahasketa gustukoa baldin badugu, bandeja batean jarri eta plastiko filmarekin estali.

10. Nahasketa bi orduz hozten utzi eta, ondoren, hozkailura sartu. Gau osoan bertan utzi.

11. Kroketa egin, nahieran.

Kroketa gainean, errezil sagar errearen emulsioa edo purea eta tipulin pixka bat gehitu ohi du Xabatek. Hauxe da prozedura:

1. Labea 180 gradutara berotu.
2. Labea bero dagoenean, sagarrak sartu eta 30 minutuz erre.
3. Sagarrak labetik atera eta ohozten utzi.
4. Sagarrak zuritu.
5. Pulpa edukiontzi batean jarri eta batidoraren laguntzaz guztia nahastu, gurin pixka

OSAGIAK

- | | |
|---------------------|-------------------------------------|
| - Esnea (litro 1) | ixtar bat |
| - Oliba olio (50g) | - Gatza |
| - Gurina (50g) | - Ogi xigortua |
| - Irina (100g) | - Arrautza |
| - Tipula haundi bat | Errezil sagar errearen emulsiorako: |
| - Datilak (60g) | - 3 errezil sagar |
| - Ahate konfit | - Gurina (50g) |

batekin.

6. Gatza gehitu, nahieran.

«Kontuz, sagarrak erreta eta zurituta daudenean, gurinarekin ondo emulsionatzeko, gurinak ezin du hotza egon; horretarako, aurreko egunetik kanpoan utziko dugu», ohartu du Xabatek.

*Ahate konfita latan saltzen da. Bertan dago ahatea bere koipean konfitatuta.

Feli 1945
Dekoradorak
ESTITXU eta GEMA ANDUEZA
Etxe apaintetan adituak
Karobieta 1, 20120 Hernani
943 33 05 64
felidecoracion@gmail.com

Zure ametsa,
gure lana...

Eukene
Jantzidenda
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Nafar kalea, 14 - Tel.: 943 332 199

gse
Asesores

Zorionak eta urte berri on!

Gudarien plaza, 13. Hernani
Telefona: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
gse@gseasesores.net

HATOR
AHOLKULARITZA

Gabon zoriontsuak eta urte berri oparoa opa dizkizuegu!

Andreale, 60. Hernani
Tel: 943 55 43 12
www.hatoraholkularitza.net

BIGARREN PLATERA

Txangurroz betetako legatza

HERNANI TRIPONTZI TABERNA

Tripontziko Igor Muñoak fin-fin deskribatu ditu plater goxo hau sukaldatzeko pausoak:

1. Legatza garbitu eta hezurak kendu.
2. Legatzari bi xolomoak atera.
3. Kontu haundiz, bi xolomoen artean txangurroa sartu eta bata bestearen gainean jarri.
4. Zartaian jarri segundu batzuz eta bi aldeak markatu.
5. Labea 180 gradutara berotu eta legatza sartu (12-15 minutu).

Saltsa egiteko:

1. Tipula eta baratxuria txikitu eta su txikian sukaldatu.
2. Nahasketari onddoa zatitan gehitu.
3. Onddo prest dagoenean, nata gehitu eta dena nahastu.



OSAGAIK

- Legatza
- Tipula 1
- Onddo 1
- Txangurroa
- Baratxuri 1
- Sukaldatzeko nata

BIGARREN PLATERA

Txuleta patata eta piperrekin

ASTIGARRAGA AKELENEA JATETXEA

Gabon hauetan ez du hutsik egingo Akelenean aurkeztutako plater honek: txuleta patatekin eta piperrekin.

1. Patatak zuritu eta zatitu.
2. Olia berotu eta patatak bertan bota, ondo frijitu arte.
3. Olia zartaian jarri eta piperrak su baxuan, mantso-mantso, sukaldatu. Gatza bota eta, aukeran, baratxuria eta azukrea ere gehitu, piperrak karamelizatzeko.
4. Txuleta sukaldatu baino ordu batzuk lehenago, hozkailutik atera.
5. Zartaia/karmela/parrila/plantxa su altuenean berotu. Bero dagoenean, txuleta jarri.
6. Txuleta markatu/seiatu bi aldetatik (gehienez, minutu 1).
7. Kolore beltza duenean, sua erdira jaitsi eta haragia sukaldatu. Oharra, txuleta puntura egiteko: lortutako



kolore beltz hori izerditzen hasten denean, txuletari buelta eman. Beste aldea izerditzen hasten denean, sutik atera.

8. Gatz lodia bota.

OSAGAIK

- Txuleta
- Piperrak
- Patatak
- Olia
- Gatz lodia
- Azukrea
- Baratxuria

Etxeko natilak

HERNANI RIOJA TABERNA



Riojako Maria Jesus Iturbidek ondo asko daki etxekoak goxatzen eta plater goxoak prestatzen. Etxeko natilak dira aurtengo proposamena, erreze-ta erraza bezain bikaina. Hauxe da emandako azalpena:

1. Esnea eta bost arrautzak (osoak) kazuelara bota eta nahastu. Garran-

tzitsua da su baxuan izatea, ez baitu irakin behar.

2. Etengabe eman, dena ondo nahasteko eta gustuko nahasketa testura lortzeko. Nahi dugun emaitza lortzen ez bada, arto irina gehitu (goilarakada txiki bat).

3. Banatu nahasketa ontzitan eta gehitu, hoztutakoan, nahi izanez gero: kanela, gaileta, nata.

OSAGAIK

- Esnea (litro 1)
- 5 arrautza
- Azukrea
- Gailetak
- Kanela
- Nata
- Arto irina (maizena)

POSTREA

2021eko euskarazko liburu eta diskoen bilduma

Kontsultatu BERRIAN,
eta erosi zure herriko dendan
edo Durangoko Azokan

Berria.eus/liburu-eta-disko-berriak/

berria zuk badakizulako



Sortzaileak



Bitartean

Euskal Herriko eta Argentinako doinu eta erritmoak uztartzen dituen folk taldea gara. Sortu ditugun kantuez eta hainbat moldaketez osatutako kontzertua eskaintzen dugu.

Gabonetarako tokiko opa aukera paregabek, baina

Kronikak, gaur zortzi, abenduaren 18an, Sortzaileon Azoka antolatu du Atsegindorik aukera balarako sortzaileek eskaintzen dutenaz gozatu, aukeratu eta Gabonetarako izango diren eta sortzaileek zein produktu jarriko o



Arrate eta Nekane

Arrate eta Nekane gara, puntua eta *gantxillua* egi-tea gustatzen zaigun bi lagun. Guretzat gure lana artisautza da. Guk eginiko lan guztiak gogo eta maitasun haundiarekin eginda daude.



Txirikorda

Goizuetako Koro eta Garazi gara (ama eta alaba). Poltsak, buruko zapiak, mototsekoak egiten ditugu eta azken hilabete honetan berrikuntza txiki batekin ausartu gara: bitxiak.



Izaskun eta Josune

Izaskun eta Josune sortzaileak gara. Bertako sendabellarrekin eta gai naturalekin egiten ditugu gure produktuak; besteak beste, ukenduak, hortzetako pasta eta xaboiak.



Berexi Art

Sorkuntza forma ezberdinetan, ilustrazioaren munduan murgilduta nago Berexi Art proiektuan. Batik bat, diseinu grafikoaren eta serigrafiaren bitartez, ilustrazioak lantzen ditut.



Hiruloretz

Poltsak eta motxilak eskuz margotu eta josten ditugu. Marrazkiaren arabera, atzeko tela aukeratzen dugu. Data hauetarako opari polita da. Hernanin eginak dita, bakoitza diseinu batekoa.



Maitane Andueza

Mimoz eta goxotasunez sortutako pitxiak egiten ditut, korapiloz korapilo landutako makrame teknikarekin eta alpazko alanbrea tolestuz eginak, eta guztiak harri naturalekin nahasturik.

ikusi-makusi
Abenduaren
4an, 11n eta 18an
arratsaldez irekita

facebook.com/ikusimakusi
instagram.com/ikusimakusihernani

Nagusia, 7. Hernani
843 63 04 69 634 607 099

EMAKUME,
GIZON
ETA HAURRAK

CALZADOS
ONETAKOAK

IRIGOYEN

ELKANO, 4
TEL. 943 55 08 31
HERNANI
EGUBERRI ON!!

ZORIONAK
ETA URTE
BERRI ON!

Iparra Sukaldeak


iparra
sukaldeak

IBARLUZE POLIGONOA, 7 - HERNANI - T. 943 556 760
WWW.IPARRASUKALDEAK.COM

on Azoka

Artari alternatiboak erosteko azokarako sorkuntzekin

egin, eta goizeko 10:00etan irekiko ditu ateak. Eguerdiko 14:00ak arte egongo da azokako opari ederrak erosteko. 23 postu jarriko dira guztira eta horietako 14 zeintzuk erabiltzen dituzten salmentan ikus daiteke bi orrialde hauetan.



Saioa García

Nire artelanetan sentimenduak eta emozioak irudikatzen saiatzen naiz. Artelan desberdinak egiten ditut; besteak beste ilustrazioak, koadroak. Leoak, akuarelak, arte digitala teknikak erabiltzen ditut.



Maite Arrieta

30 urte baino gehiago daramatzat arte ederretan. Olioia, serigrafia, grabatuak, akuarelak... azkenaldian, lore eta hosto naturala erabiliz, erretxinekin eta bitxitegiarekin egin dut lan.



Otsaihen

Hernanin sortu eta, egun, Berriozarren dugun Euskal Garagardo Kooperatiban egindako garagardo artisauak egiten ditugu. www.otsaihen.eus-en ikusi eta eskatu. Hernanin dena ez delako sagardo!



Sigue la Estela

Umeentzako Sigue la Estela produktuak egiten ditut modu pertsonalizatuan. Maitasun askorekin produktu barietate ugari egiten ditut, baita urtebetetzeetarako produktuak ere.



Marina Torres

Marina naiz eta Hernanin daukat denda. Eskuz egindako poltsa eta osagarri jasagarriak eskaintzen ditut. Hortaz aparte, beste emakume sortzaileen produktuak ere ekaintzen ditut.



Puochinah-Laster arte

Azizek eta Maialenek, Kamerun eta Euskal Herriak, osatzen dugu proiektua. Afrika mendebaldeko wax oihalez jositako sorkuntzak aurkituko dituzue gu-rean, etxeko goxotasunetik sortuak.



Markel Oiarzabal

Liburuak Amaiaren ibilbidea islatzen du. Nahi duena lortu eta aurkitzeko eman beharreko pausoak kontatzen ditu gidoiak, bidean izango dituen ezbeharrak, oztopoak.

IRUBIDE JATETXEA

Zorionak eta urte berri on!

Epele auzoa, 7
943 552 480 - 667 208 702

Eguberri on!!

JTXASPE

Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Móbil: 665 735 224
20120 Hernani

JOMER

EDARITEGIA

WASHING MACHINE

Kale Nagusia, 7
Tel.: 943 55 00 32

Mahuka

Gabon zorionsuak opa dizkizuegu!

ANDRE KALEA, 28 BEHEA
HERNANI
943 333 639

Zer oparituko dut Gabon hauetan?



Gabonak ate joka ditugu dagoeneko, eta erosketak egiteko garaia ere gerturatzen ari da. Bada, Urumea bailaran aukera zabala dago adin tarte guztietako herritarrentzat. Arropa eta zapata dendarak, jostailu dendarak... eskaintza paregabea dugu herriko komertzioetan.



Eskaintza zabala dute Felin, etxea apain-apain jartzeko.

HERNANI FELI

Etxe apainketan adituak dira Feli dendan, eta Estitxuk eta Gemak Gabon hauetan oparitzeko eskaintza zabala dute: maindireak, toailak, albornozak, mantak, eta beste asko. Gainera, kortinak dira beren espezializazioa, eta mota guztietakoak dituzte aukeran. **K**



Baserritar jantziez gain, makina bat produktu ere badituzte.

HERNANI OIHALA

Santo Tomas eguna gerturatzen ari da, eta baserritar jantzi mordoak dago aukeran Oihalan. Kontxik mota guztietako jantziak ditu adin herritarrentzat. Hori ez ezik, punta-puntako maindireak, toailak, albornozak eta etxerako beste hamaika produktu ditu. **K**



Artilea eskaintza paregabea da Gabon hauetarako.

HERNANI MAHUKA

Etxekoei edota lagunei zer oparitu oraindik ez baldin badakizu, bertaratu Mahukara, aukera zabala dute-eta. Guztia kalitatezkoa da eta bete-betean asmatuko duzu bertako edozein jantzirekin. Aurtengo puntu fuertea: artilea. Nagorek makina bat kolore eta aukera ditu dendan. **K**

MARISCOS HERNANI
Eguberri on!
Javier Juaristi
609674344
Kale Nagusia, 20 - 20120 Hernani
943 555 156
mariscos hernani

PODOLOGIA
NEREA URDALLETA GUERRA
ONDO IBILI GABONETAN
943 55 60 13
KALE NAGUSIA 16,
ASTIGARRAGA

EDERTASUNA ONGIZATEA OPARITU
EROSI OPARI BAT ETA JASO ZURETZAT AURPEGIKO TRATAMENDU BAT DOAN
NIBIRU EDERGINTZA
IZPIZUA KALEA 1. HERNANI
943 243 560
WWW.NIBIRUEDERGINTZA.COM

MK
estudioa
ileapaindegia
Jai zoriontsuak!
Andreale 48, atzealdea HERNANI 943 55 20 81 / 688732631



Aukera zabal jaio berrientzat, haurrentzat, gazteentzat zein helduentzat.

HERNANI IKUSI-MAKUSI

Adin guztietarako eskaintza zabala du Ikusi-Makusik Kale Nagusiko dendan. Jostailuak, mahai-jokoak, agendak, denborpasak, eskolarako materiala... denetarik aurki daiteke bertan. Jolasak haurrentzat bakarrik ez direla ziuratzeko, bertaratu eta gozatu, aisialdirako eskaintza paregabea dute-eta! **K**



Etxeko zapatilak, mendikoak zein kalekoak aurki daitezke Urratsen.

HERNANI URRATS OINETAKOAK

Urteroko oparia izaten dira etxean goxo-goxo egoteko zapatilak, eta horretarako aukera zabala dago Urratsen: marrazkidunak, marrazkunak, lisoak... denetarik dute dendan. Hori ez ezik, marka askotariko mendiko oinetakoak, euritarako botak eta egunerokotasunerako produktuak ere aurki daitezke bertan. **K**



Xarmant pelukeria eta estetika zentroan oparitarako aukera zabala dago.

HERNANI XARMANT

Norberaren burua zaintzeko eskaintza zabala dago Xarmanten. Aurpegiko, gorputzeko eta ileko tratamendu berritzaileak eskaintzen dituzte, punta-puntako teknologiarekin. Aurtengorako, opari borobila hauxe: K18 (ilerako) eta Bio-luminiszentzia (aurpegirako eta gorputzerako). Bertaratu eta galdetu! **K**



Euritarako bota egokiak, Irigoyen Oinetakoak dendan.

HERNANI IRIGOYEN

Etxeko zapatilak, euritarako botak, mendikoak... hamaika aukera dago Irigoyen Oinetakoak dendan. Punta-puntakoak dira guztiak, eta urte osorako erabilgarriak dira, gainera. **K**



Biteriko areto nagusian egin zuten Mintzodromoa, goiz

ASTIGARRAGA MON


Egunerokorako beharrezkoak diren produktuak eskuratzeko, bertaratu Mon dendara. Material jasangarriarekin egindako produktuak aurki daitezke: motxilak, jostailuak, botilak... **K**



Biteriko areto nagusian egin zuten Mintzodromoa, goiz eta

HERNANI XARMANT

Idea paregabea da norberaren zaintzarako eskaintzaren bat oparitzea. Horretarako aukera dago Nerea Urdalletaren podologia zentroan. Gabon hauetan, oparitu oinen garbiketa edo pausoen azterketa. **K**



Biteriko areto nagusian egin zuten Mintzodromoa, goiz

HERNANI MK

Orrazkera berria funtsezko aldaketa baterako giltza da, eta horretarako aukera ezin hobea eskaintzen dute MKn. Gainera, modari lotuta, bailarako gazte ekintzaileen produktuak ere eskura daitezke estudioan. Animatu! **K**

Gabon hauetan ere tokikoa tokikoentzat



BERRIAK
Hernani

**BIZI, EROSI
ETA MAITE
HERNANI**



HERRIA BABESTUTAKO EDUKIA

Gabonak ate joka ditugun honetan, Berriak Ostalarien eta Merkatarien Elkartek tokikoa eta bertakoa erosteko eta oparitzeko mezua luzatu die herritarrei.

Herritik mugitu gabe, Hernanin bertan makina bat komertzio daudela azpimarra-

tu dute. Bertan eros daitezke aurtengo opariak, eskaintza zabala baitute bertako dendaguztietan. Gabon gauean, Eguberri Egunean, Urte Zahar Gauean edota Urte berri Egunean sukaldatzeko produktuak ere herrian eros daitezke: arraia, haragia, mariskoa, enbutidoa... denetarik dago aukeran.

Gainera, herrian erosita, saltoki haundietara joan eta pilaketak saihestuko ditugula nabarmendu dute elkarteko arduradunek.

Betiko moduan, ziurtatu dute kalitatezko produktuak topatuko ditugula saltokietan. Dendariak, noski, gertuko tratua eskainiko diete bertaratzaren diren herritarrei, eta punta-puntako opariak erosteko eta urteko menurik goxoenak prestatzeko, beharrezkoak dituzten aholkuak ere emango dizkiete bezeroei.

Hori ez ezik, banaketa zerbitzuarekin, erosketak etxera eramateko aukera ere bada-goela gogorarazi dute. Izan ere, Gabonetako erosketak egiteko ez dago etxetik ateratzeko beharrik. Gustukoen dugun dendara deitu, eskaera egin, eta banaketa zerbitzukoek eramango dute etxera. Beraz, gogoratu: aurtan ere tokikoa tokikoentzat!

Urte Berri eguneko ohiturak

Urtea behar bezala hasteko, mendia, poteoa ala biak?

Urte Berri egunean Adarra mendira igotzeko ohitura oso zabalduta dago, Hernanin bereziki; baina bestelakoak dira egun horretarako planak, bailarako txoko ezberdinetan. Aranon eta Goizuetan, esaterako, indar haundiagoa dauka poteoak, kanpoan bizi diren herritar askorekin elkartzeko parada izaten baitute orduan.

URUMEA URTE BERRI EGUNA

Oso errotuta dago, Euskal Herriko txoko askotan, urteari hasiera emateko mendi puntaren batera igotzeko ohitura. Horrela da Hernanin ere, esaterako, erreferente nagusi bezala Adarra mendia hartuta. Urnietatik zein Andoaindik bezala, Hernanitik ere makina bat herritar joaten dira Adarrara, Urte Berri egunean. Besabitik behera errepide bazterrean izaten diren kotxe pilaketak ikusi besterik ez dago.

Baina dena ez da Adarra, eta ezta dena mendia ere, Urte Berri egunez. Hernanin bertan, gero eta gehiago dira, Adarra inguruetara joan ordez, gertuago dauzkaten tontortxoak bilatzen dituztenak, familian joateko. Eta Santa Barbara da, azkeneko urteotan, indarra hartzen ari den toki bat. Askok dira, taldeka, gotorlekura igotzen direnak, hamaiketako, txanpaina eta erregetako roskea hartuta, esaterako, urte berriaren hasiera ospatzeko gogoz.

Ereñotzun ere zabalduta dago mendira joateko ohitura, eta batzuk Adarrara joaten diren bezala, bestelako tontorrek edo tokiak bilatzen dituzte askok: Onddi dela, Urdaburu dela... Akola ingurura ere joaten dira auzotarrak, bereziki haurrekin doazenak.

Baina aldiz, Urte Berri egunez mendira joateko ohitura hori ez dago hain zabalduta bailarako beste hiru herrietan: Astigarra, Goizuetan eta Aranon. Astigartarren kasuan, Adarra erreferentea bera hain gertu izan arren, ez dago bereziki errotuta Adarrara edo beste mendi batzuetara joateko ohitura. Edonola ere, badira herritarrek, mendizaleak bereziki, egun horretan lo gutxiago egin eta mendirako bidea hartzen dutenak, hutsik egin gabe.

Bestelako kontua da Aranoakoa eta Goizuetakoa. Horietan, poteoak eta otorduek beste toki gutxitan bezalako indarra dute, arrazoi nabarmen bat tarteko: herritar asko bizi dira herritik kanpo, horietako batzuk oso urrutiti; eta urtean zehar inoiz edo oso gutxitan herrira azaltzen direnak etortzen dira orduan. Hortaz, urte osoan ikusi gabeko herritarrekin egoteko parada izaten dute aranoarrek zein goizuetarrek, jan-edanaren bueltan elkartzen diren tarte horietan. Urte Zaharrean bezala Urte Berri egunean, herriko kale eta tabernetan elkartzen dira, batarekin zein bestearekin urte osoko kontuak berritzeko. Ederra izaten da kaleko giroa, mugimendu haundikoa.

Familia asko ere, urte osoan gutxitan elkartzen dira oso-oso-



Hamaiketakoa, erregetako roskea eta txanpaina hartuta igotzen dira batzuk, Urte Berri egunez, Santa Barbarara.

rik, eta Gabonak izaten dira zita horietako bat. Hori horrela, asko luzatzen dira otorduek etxean, kontu kontari; eta Urte Zahar gaua ez da salbuespena izaten. Goizaldearen amaierara arte luzatzen dute afalondorena, eta baita kalera atera ere, pote bat hartuz, gaupasa eginez.

Hori horrela, ez da harritzekoa gaupasero asko eta mendirako gogo gutxi izatea herrian. Ez dago zabalduta, ez Aranon eta ez Goizuetan, urteko aurreneko egunean mendira joateko ohitura hori. Baina badira, noski, goizeko mendi bueltari hutsik egiten ez dioten mendizaleak. Goizuetarren kasuan, Mandoegi aldera egiten dute buelta gehienek, urtea ondo hasteko.

Edonola ere, poteoa ez da Aranon eta Goizuetan errotutako ohitura bakarrik, noski. Ereñotzun, esaterako, ez diote hutsik egiten eguerdiko trago

pareari, menditik bueltan edo ia jaiki berritan, familian zein lagunartean elkartu eta herri-kideei urte berria zoriontzeko.

Ohitura txikiak, etxez etxe

Badira oso zabalduta dauden ohitura ezagunak; baina badira, era berean, etxez etxeko edo tokian tokiko ohitura txikiak, urtea joan eta urtea etorri mantentzen dituztenak, bertakoek. Eta horiek, kasu askotan, ez dira inongo liburutan edo egunkaritan azalduko, eta ezta beharrik ere. Belaunaldiz belaunaldi, etxean jaso dituzte, eta hutsik egin gabe errespetatu. Goizuetan, Bakerotarrenean, esaterako, abenduaren 24an ez dute hutsik egin gaztain erreek, azkeneko hamarkada luzetan. Eta Ereñotzun, hamaiketako-bazkari eder-rra egiteko elkartzen da koadrila majoa urtero, soziedadean.

Ohitura zaharrak dira ba-

tzuk, urtetako ibilbidea dutenak; eta berriak beste batzuk. Aranon, esaterako, bazuten ohitura bat, garai batean, urte aldaketarako. Gauerdia baino lehen ateratzen ziren Surotik, baserriz baserri koplak kantatzera; eta gauerdia pasa ondoren iristen ziren Goiko Herrira. Horrela, Urte Zaharreko koplak kantatzen zituzten aurrena, eta Urte Berrikoak ondoren, behin gaueko 00:00ak pasata.

Ohitura hori galdu zuten, eta ari dira ohitura txiki berriak sortzen. Zenbait etxetan, adibidez, kalera ateratzen dira Urte Zahar gaueko kanpaikadek jo eta berehala, pitxarrak hartuta iturrira, urarekin topa egitera. Beste herri batzuetan sortutako ohitura da, Aranoko familia batzuek bere egin dutena eta, batek daki, akaso urte gutxi barru herri osora zabalduta egongo dena. Txikitik hasten baita, ohitura haundiena ere... **K**

RIOJA TABERNA
Kale Nagusia, 6. Hernani

2021 urtea ere pasa zaigu...
Urte berri on guztioi!

sulabe
Ogirik beroena

Eraman zure mahaira Sulabe ogia www.sulabe.com

Irrigoenea Okindegia. Hernani
Tel. 943 331 725

Peña Okindegia. Hernani
Tel. 943 552 398

Sulabe. Hernani
Tel. 943 554 954

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Haur eta gazteak

Bi dozena aukera gaztetxoek, oporraldiaz gozatzeko

Makina bat ekintza prestatu dituzte Gabonetako oporralkirako, Hernanin eta Astigarragan; eta ia egunero izango dute zerekin gozatua, haur eta gazteek. Jolaserako guneak, eskulanak egiteko tailerrak, artisten pare aritzeko txokoak edota antzerki eta zine emanaldiak izango dituzte. Izena eman behar da horietako zenbaitetan.

URUMEA HAUR ETA GAZTEAK

Egunak zenbatzen ariko dira baidarako haur eta gazte gehienak, Gabonetako oporralkirako iristeko. Eta ez daukate urruti: datorren aste osorik, eta hurrengo laburra eta egun bereziz betetakoa. Izan ere, abenduaren 21ean edo 22an hartuko dituzte oporrak, bi aste eta erdirako; eta azkeneko egun horietan, Santo Tomas eta Gabonetako bestelako ospakizunak izango dituzte.

Eta hortik aurrera ere, oporraldi luzean, ez dute aspertzeko tarterik izango. Makina bat ekintza prestatu dituzte haien-tzat, bi dozena, mota guztietakoak. Eskulanak egiteko tar-tea izango dute, edota artisten pare ibiltzeko, prestatu dituzten ikastaroekin: zirku tailerra, komikigintza, espresio askea...

Jolaserako ere izango dira makina bat aukera. Hernanin, ludoteka jarriko dute kiroldegian, abenduaren 27tik 30era, goizeko 10:00etatik 13:00etara. Eta Astigarragan, jolas aretoa zabalik egongo da kiroldegi azpiko gela anitzean, abenduaren 27tik 31ra eta urtarrilaren 3an, 10:00etatik 13:00etara goizez, eta 16:00etatik 18:30etara arratsaldean. Batean zein bestean, doakoa izango da sarrera.

Doberak ere jarri ditu bi hiztordu berezi, abenduaren 26an

eta urtarrilaren 2an: *Hi, Selfie!* jolasa antolatu du, familian gozatzeko, Hernaniko kaleetan barrena. Horretarako, alde zurretik eman behar da izena, Doberaren bulegoan (Larramendi kalea 11, behe) edo 943 33 27 99 telefonora deituta.

Eta emanaldiak ere izango dituzte gozagarri, oporraldi honetan: *Haritzaren bihotza* filma, eta *Ganbara doinuak* eta *Olentzeroren gutunak* antzezlanak. **K**



Mota guztietako jolasak izango dituzte kiroldegiko ludotekan, Hernanin, urtero bezala.

OPORRALDIAN...

HERNANIN

Abenduak 21, Txistor jatea Gaztelekuan, 17:30etatik 19:30etara (12-17 urteko gazteentzat).

Abenduak 22, Harizko mandalak egiteko tailerra, Gaztelekuan, 17:00etatik 20:00etara (12-17 urte).

Abenduak 23, Egurrezko kuxkak egiteko tailerra, Gaztelekuan, 17:30etatik 19:30etara (12-17 urte).

Abenduak 26 eta urtarrilak 2, 'Hi, Selfie!' herrian barrena, 10:30etatik 12:00etara, haur eta familientzat. Izenematea: Dobera Euskara Elkartearen bulegoan (Larramendi kalea 11), edo 943 33 27 99.

Abenduak 27, 28, 29 eta 30, Ludoteka kiroldegian, 10:00etatik 13:00etara (0-14 urtekoentzat).

Abenduak 27, 28, 29 eta 30, Komikigintza tailerra, Axpik gidatuta, 11:00etatik 12:30etara liburutegian (12-14 urtekoentzat). Izenematea: liburutegian, plaza mugatuak.

Abenduak 27, Mural margoketa Gaztelekuan, Berexiartekin, 17:30etatik 19:30etara (12-17 urte).

Abenduak 28, 29 eta 30, eta urtarrilak 3 eta 4, Espresio askea jolasen bidez, Karla Ferreñok gidatuta, 11:00etatik 12:30etara (12-17 urtekoentzat). Izenematea: labur.eus/4qp12 edo 943 33 70 41.

Abenduak 28, Aerorumba dantza saioa, Jenny Perlazarekin, 17:00etatik 18:30etara kiroldegian (12-17 urtekoentzat).

Abenduak 29, Usurbilgo Costa Jump ohe elastikoetara irteera, 15:45etatik 19:00etara, Gaztelekuan eskutik (12-17 urte).

Abenduak 29, Haurrentzako antzerkia: *Ezinezkoaren logika*, Hodei magoarekin, 18:00etan Biterin.

Abenduak 30, Urte berrirako desioak, 17:00etatik 20:00etara, Gaztelekuan (12-17 urte).

Urtarrilak 2 eta 3, Haurrentzako zinea: *Haritzaren bihotza*, 16:30etan Biterin.

Urtarrilak 3 eta 4, Zirku tailerra, 11:00etatik 13:00etara Atsegindegin (6-11 urteko haurrentzat). Izenematea: labur.eus/PCKzc edo 943 33 70 41. Plaza mugatuak.

Urtarrilak 4, Haurrentzako antzerkia: *Ganbara doinuak*, Markeliñe konpainiaren eskutik, 18:00etan Biterin.

Urtarrilak 7, #interesguneak, 17:00etatik 20:00etara Gaztelekuan (12-17 urte).

Urtarrilak 8, Donostiako Txuri Urdin izotz jauregiara irteera, 16:15etatik 19:30etara, Gaztelekuan eskutik (12-17 urte).

Urtarrilak 9, Zinemara irteera, Gaztelekuan eskutik (12-17 urte).

ASTIGARRAGAN

Abenduak 15 eta 17, Jostailuen truke azoka, 16:30etatik 18:00etara Herri Eskolako atarian. 15ean jostailuak osatuta eta egoera onean eraman, eta truke-txartela jaso; eta 17an beste norbaitek utzitako jostailua hartu truke-

txartelarekin. Udaleko Hezkuntza Sailak eta Xaguxar elkarteak antolatuta.

Abenduak 27, 28, 29, 30 eta 31 eta urtarrilak 3, Jolas aretoa, kiroldegi azpiko gela anitzean, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30etara. Sarrera irekia eta doakoa.

Abenduak 23, 27, 28, 29 eta 30 (aurreneko txanda), eta urtarrilak 3, 4, 5 eta 7 (bigarrena), Multikirola, 09:00etatik 13:00etara kiroldegian (2010-2015 urteetan jaiotakoentzat). Izenematea: kiroldegian edo 943 33 36 76, abenduaren 17ra arte.

Abenduak 23, Haurrentzako antzerkia: *Olentzeroren gutunak*, Deabru Beltzak konpainiaren eskutik, 17:00etan Erriberan.

Abenduak 26, Haurrentzako zinea: *Haritzaren bihotza*, 16:30etan Erriberan.

Abenduak 28, Txotxongiloak: *Noraren sekretua*, 17:00etan Erriberan (5 urtetik gorakoentzat).

TTILIN & TOLON

Guztiok zaindu gaitezen

Txirrita, 10 Hernani

686 26 51 57
943 55 56 94

apaindura

OIHALA

hogar

Zorionak eta eguberri on!

Elkano, 11
Tel. 943 55 64 87

HERNANI

URALDE ITURGINTZA

50. URTEURRENA 1970 - 2020

ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
AIRE EGOKITUA
ZORU BERO EMAILEAK
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
MANTENUA

GABON JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Bezere guztiei urtean zehar erakutsitako fideltasuna eskertu nahi diegu. Mila esker!

Mañe y Flaquer, 5 behe 1 HERNANI • Tel 943 55 33 55 • uralde@uraldeiturgintza.com

NEGUKO OPORRAK-DOBERA

Neguko oporrez gozatzeko aukera, Doberak antolatutako ekintzekin

Aurtengoan ere, Doberak antolatuta, 'Negulekuak' eta 'Oporrak familian eta euskaraz' ekimenak izango dira etxeko txikiek Gabonak modu paregabea pasa ditzaten. Bi ekintzetan parte hartu nahi bada, aurretik izena eman behar da 'dobera@dobera.eus' helbide elektronikora idatzita, edota 'dobera.eus' webgunean sartuta.

HERNANI DOBERA

Hotzarekin batera, hemen dira neguko oporrak, eta nola ez, urteroko ohiturari eutsi nahi izan dio Dobera Euskara Elkar-teak, primerako bi eskaintza eskainiz. Gabonetako oporretan, etxeko txikiek ez dute asper-tzeko tarterik izango bi ekintza hauekin: batetik, *Negulekuak*, eta bestetik, *Oporrak familian eta euskaraz*.

Neguko oporretan euskeraz gozatzeko asmoa duten guztien-tzat daude prestatuta Negulekuak, eta abenduaren 23tik ur-tarrilaren 7ra bitartean egingo dira: astelehenetik ostiralera, goizeko 09:00etatik 13:30etara. Ekimen hau 3 eta 13 urte bitarte-ko haurrei (2009-2018) zuzendu-takoa da. Bertan, hainbat ekin-tza egiteko aukera paregabea izango dute herriko txikiek be-giraleekin: hala nola, ipuin kon-takizunak, tailerrak, jolasak, kantu saioak, irteera txikiak...

Guztira bi talde osatuko dira; bat Hernanin eta bestea, berri-z, Ereñotzun. Negulekuetan parte hartzeko, Doberak dio alde-z aurretik izena ematea beharrezkoa dela. Abenduaren 16ra arte dago izena emateko aukera eta www.dobera.eus webgunean dagoen formularioa beteta egin daiteke. Aste bakarerrako eman daiteke izena, 60 euro ordainduta, eta Doberako bazkideek 50 euro. 110 euro ordaindu beharko du egun guztietan parte hartu nahi duenak, eta Doberako bazkide izan-da, 90 euro. Gainera, Doberak azaldu du kopuruak mugatuak direla: «beraz, azkar ibili!».

Negulekuak ordaintzeko Zer-bitzu Sozialak laguntzeko prest daudela era nabarmendu dute Doberako kideek: «dirua ez da-dila arazoa izan, Zerbitzu Sozia-lak prest baitaude laguntzeko. Hala ere, bertan hitzordua eska-tzea beharrezkoa da».

Dobera Euskara Elkar-teak

antolatutako bigarren ekintza *Oporrak familian eta euskeraz* izeneko ekimena da. Bertan, familian, hizkuntzaren trans-misioan eragiteko hainbat ekin-tza daude; haurrak eta helduak, (guraso, aiton-amona...) elkarre-kin egoteko xedearrekin.

«Haurrak eta helduak elkarrekin egoteko helburuarekin, familian, hizkuntzaren transmisioan eragiteko hainbat ekintza daude»

Denera, bost dira *Oporrak familian eta euskaraz* ekime-na osatuko duten ekintzak, eta lehenengoa, Udalaren Gazteria Sailarekin elkarlanean, aben-duaren 26an izango da: *Hi selfie!* herrian barrena. Bi igandetan eskainiko da, abenduaren 26an lehena, eta urtarrilaren 2an bigarrena. Eta Doberak aipa-tu duenaren arabera, bi saioak berdina izango dira. Jolasari goizeko 11:00etan emango zaio hasiera udaletxeko arkupeetan, eta jolas honen helburua da jasotzen duten argazkiaren erreproduktzioa egitea izango. Horretarako, argazkia herriko zein txokotan dagoen aterata ere kontutan izatea garrant-zitsua da. «Taldea bakoitzean, ezinbestekoa izango da telefono mugikor bat egotea», azaldu du Dobera Euskara Elkar-teak.

Jolasean, adin guztietako herritarrek har dezakete par-te, hala nola, lagun taldeek, familiekin... Talde horiek, 3 eta 6 urteko bitarteko kideez osatu-ta egongo dira, eta «12 urtetik beherakoak, gutxienez, adin na-gusikoa den kide batekin aritu beharko dute jolasean. Egun ba-koitzeko, gehienez, 10 talde ari-



Neguko oporrak ederki pasatzeko aukera emango du Gabon hauetan ere, Dobera Euskara Elkar-teak.

tuko dira jolasean». Sariak ere egongo direla ziurtatu du Dobe-rak: «argazki onena ateratzen duen taldeari emango zaio bat, eta bestea, partehartzaile guz-tien artean zozketa egingo da (igande bakoitzeko 2 sari)».

Abenduaren 28an, eskula-nen tailerraz gozatzeko aukera izango dute herriko txikiek. Bi txanda egongo dira; lehenengoa goizeko 10:00etan hasiko da eta bigarrena 11:30etan; biak Atse-gindegin. Izena ematerakoan, 2 edo 3 eskularen artean bakar-ra aukeratu beharko da. Tailerra 3 eta 12 urte bitarteko haurren-tzako izango da, «betiere hel-du batekin arituko direlarik». Ume bakoitzeko 2 euro ordain-du beharko dira, eta Doberako bazkideentzat doakoa izango da tailerra.

Abendua ezin hobe amaitze-ko eta gorputza mugimenduan jartzeko, Euskal Zumba antola-tu da. Goizeko 11:00etan emango zaio hasiera saioari, Atseginde-gin. Doberako begiraleek gidatu-tako saioa izango da eta herritar guztiei zuzenduta dagoela jaki-narazi du Doberak.

Behin urtea amaituta, urte

berria ederki hasteko, *Hi Selfie!* herrian barrena lehiaketaren bigarren saioa egingo da. Horrez gain, urtarrilaren 4an, burua-rinak egiteko sekulako aukera izango dute txikienek. Goizeko 10:30etan hasiko da tailerra, Atsegindegin. Saio hau 3 eta 12 urte bitartekoentzako izango da, betiere heldu batekin arituta. Umeek beraien buruarina egin eta etxera eramateko aukera izango dute, 10 euro ordainduta,

eta 8 euro Doberako bazkideek.

Urtarrilaren 7an, *Oporrak familian eta euskaraz* ekimenaren azken ekintza egingo da: talde jolasak. Goizeko 11:00etan emango zaie hasiera jolasei, eta Atsegindegin izango dira.

Azkenik, aipatutako ekintza bakoitzean parte hartzeko alde-z aurretik izena eman behar da dobera@dobera.eus helbidera ida-tzita edota 662 406 692 telefonora deituta. **K**

EGITARAUA

OPORRAK FAMILIAN ETA EUSKARAZ

ABENDUAK 26 'Hi selfie!' herrian barrena. **11:00.** Udaletxeko arkupean.

ABENDUAK 28 Eskulan tailerra. (2 txanda). 1. **10:00**, 2. **11:30**. Atsegindegin.

ABENDUAK 30 Euskal Zumba. **11:00** Atsegindegin.

URTARRILAK 4 Buruarinen tailerra. **10:30** Atsegindegin.

URTARRILAK 7 Talde jolasak. **11:00** Atsegindegin.

NEGULEKUAK

Abenduak 23tik urtarrilak 7ra (Astelehenetik ostiralera) **09:00-13:30**

Matrikula Negulekuetan:

Aste bakarra: 60 euro (orokorra) eta 50 euro (bazkideak)
Egun guztiak: 110 euro (orokorra) eta 90 euro (bazkideak)

IZEN EMATEA

Helbide elektronikoa: dobera@dobera.eus

Webgunea: dobera.eus

Telefonoa: 662 406 692

Eguberri on!

PINEDA HARATEGIA

Andre kalea, 32. Hernani
943 55 16 43

UKERDI

Ia 25 urte igaro ondoren, erretiratzeko ordua iritsi da. Eskerrak eman nahi dizkiet bezeroei denbora horretan emandako laguntza eta konfiantzagatik. Eskerrik asko guztioi.

EGUBERRI ON!

Xarmant

Ileapaindegia
Estetika Zentroa

Urte berri on!!!!

Orokorra 2. Tf. 943 33 59 08

Olentzero eta Mari Domingi panpin lehiaketa

Datorren larunbatean izango da panpin lehiaketaren sari banaketa

Aurtengoan ere, Mari Domingiren eta Olentzeroren panpin lehiaketa antolatu du Kronikak Gabon hauetarako. Datorren larunbateko Sortzaileon Azokan aurkeztu beharko dira lanak, eta bertan erabakiko dira garaileen izenak. Hiru sari izango dira: helduen kategoriakoa, haurrena, eta zozketa bidezkoa.

URUMEA PANPIN LEHIAKETA

Joan den urtekoari segida emanez, aurtengoan ere Olentzeroren eta Mari Domingiren panpin lehiaketa aurkeztu du Kronikak. Oraingo honetan, ordea, berezia izango da edizioa; izan ere, datorren larunbatean, abenduaren 18an, Sortzaileon Azoka antolatu du Dobera-Kronikako lantaldeak, eta bertan erabakiko dira, aurkeztutako lanen artean, irabazleen izenak. Sarituak zeintzuk izango direnaren erabakia adituen esku utziko da; hain justu, azokan parte hartzen duten sortzaileek izendatuko dituzte aurtengo edizioako garaileak.

Deialdia luzatu zaie familiei, lagun taldeei, norbanakoei, ikas-tolei... izan ere, guztiek dute parte hartzeko aukera. Lehiaketaren nondik norakoak, hain justu, errazak dira, edonork egiteko modukoak.


Hasteko eta behin, jakin beharrekoa da ez dagoela arau finkorik. Alegia, panpina egiteko, Olentzeroren eta Mari Domingiren artean aukeratu daiteke; baina, noski, biak egiteko eta biak aurkezteko aukera ere badago. Gainera, garaiz bazabiltza, astoa ere egin dezakezu. Nahieran... erabakia, zure esku!

Bestalde, hori bai, kontuan izan panpinek material berreskualdeekin eginak izan beharko

ditela. Horretarako, erabili ditzakezue arropa zaharrak, trpuak, aurreko asteetako Kronikak, lastoa, eta beste hamaika material. Joan den urtean, makina bat aukera erabili zituzten partehartzaileek. Guztien artean, helduen kategorian, saria jaso zuten Nekane Idarretaren panpinek. Bi kalabaza ziren Nekaneren Olentzeroren eta Mari Domingiren oinarriak, eta originaltasuna saritua izan zen kasu honetan. Beraz, eragin buruari, ziur zuek ere izango dituzue-eta ideia zoragarriak aurtengorako!

Bestelakoan, baldintzarik ez dago. Familian, lagunartean, banaka edota nahi duzun beste edonorekin egin ditzakezue panpinak. Helburua, jakina denez, ondo pasatzea, entretenitzea, momentu goxoak bizitzea eta, jakina, etxeak apaintzeko panpinak egitea da.

3 sari: umeena, helduena eta zozketa bidezkoa
Aipatu moduan, sari banaketa datorren larunbatean izango da, hilaren 18an, Atsegindegina antolatutako Sortzaileon Azokan. Hiru irabazleen izenak (helduarena, haurrena eta zozketa bidezkoarena) 13:00etan jakinaraziko dira. Nolanahi ere, parte hartzeko interesa dutenek aldeztu aurretik utzi beharko dituzte lanak azokan, 10:00etatik 11:00etara bitartean. **K**



Kartulinar erabili ditzakezue panpinak egiteko.



Familian, lagunekin edota bakarka egin ditzakezue lanak.

«Irudimenari mugarik ez jarri eta aurreiritzirik gabe sortu»

Uxue Bereziartua sortzaileak panpinak egiteko hainbat gomendio eman ditu.

URUMEA PANPIN LEHIAKETA

Uxue Bereziartua *Berexi Art* izango da Sortzaileon Azokako partehartzaileetako bat, eta lehiaketan bozka emango duen haritik, argi du zein den panpin borobila lortzeko gakoa: «irudimenari mugarik ez jartzea eta aurreiritzirik gabe sortzea», dio. «Hori da, batez ere, garrantzitsua». Horrez gain, etxean ditugun elementuak berrerabiltzeko



Kalabazekin egindako Nekane Idarretaren panpinek jaso zuten saria.

deialdia luzatu du: «materiala erosi beharrean, berrerabili daitekeen gauza mordoa dugu gure inguruan, eta sormena

lantzen lagundu dezakete. Hortaz guztiaz baliatu eta ekin sortzeari; eta, batez ere, ondo pasa eta gozatu bidean!».

AHOLKUAK

- Irudimenari mugarik ez jarri.
- Aurreiritzirik gabe sortu.

- Materiala erosi beharrean, etxe-koa berrerabili.
- Ondo pasa eta gozatu bidean.



Iturriaga, 3 HERNANI
Tel. 943 55 65 64

f www.facebook.com/urratshernani
@ urratshernani@gmail.com

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Aurtengo Gabonei elkartasuna eskatuko diegu eta urte berriari osasuna.
Urratsen partetik:
"Zorionak eta urte berri on!"



Olentzero eta Mari Domingi maiteak,

_____ naiz, ____ urte ditut, eta _____-n bizi naiz...



**Zein da
nire desioa?**

